

**AUTOEBALUAZIOA****III. MODULUA: BENA-BARNEKO ETA ARTERIA-BARNEKO ADMINISTRAZIOA**

1. Farmakoen bena-barneko administrazioa bide periferiko batetik:

- a) Osmolaritate altuko disoluzioen administrazioa ahalbidetzen du
- b) Shock egoeran erraza da administrazio modu hau erabiltzea
- c) Gehienez 72 orduz mantendu daiteke
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

2. Bolus administrazioa:

- a) Bolumen handien administrazio azkarra ahalbidetzen du
- b) Bolumen handien administrazio motela ahalbidetzen du
- c) Farmakoaren administrazio-abiadura kontrolatu daiteke eta tratamendua eten
- d) Toxikotasun eta eragin desiragaitzak eragiteko arriskua handiagoa da

3. Bena-barneko perfusioa:

- a) Bolumen handien administrazio azkarra ahalbidetzen du
- b) Orokorrean bolumen txikiak administratzeko erabiltzen da
- c) Farmakoaren administrazio-abiadura kontrolatu daiteke eta tratamendua eten
- d) Toxikotasun eta eragin desiragaitzak eragiteko arriskua handiagoa da

4. Sendagaien arteria-barneko administrazioa:

- a) Indikazioen artean, antineoplasikoen administrazioa dago
- b) Bide honetatik sustantzia erradioopakoak administratzea kontraindikatu dago
- c) Abantailen artean arteria kanulatzeko erraztasuna aipatu dezakegu
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira